

# DEKLINABIDEA

Perpausean dagokion eginkizuna kasuaren eta heinaren arabera betetzeko atzizkia erantsiz sintagma egokitzea da deklinabidea.

## KASUAK

Ikusi dugunez, deklinabide-kasu nagusiak bost dira: Nor, Nori, Nork, Osagarria eta Izenlaguna (25. or.).

Norek bi kasu ditu: Nor eta Norik.

Norrek eta Norik kasu bana dute.

Osagarriak hamabi kasu ditu, baina leku-denborazko kasuek bizidun eta bizigabeko sintagmak bereizten dituztenez gero, guztira hemezortzi kasu dira.

Izenlagunak hamar kasu ditu, haietako bederatzi osagarrietatik etorriak. Baina hemen ere leku-denborazko kasuen bizidun-bizigabeko bereizketa dela eta, azkenean hamalau kasu dira.

## HEINAK

Heinak zazpizpazortzi direla ikusi dugu, literaturak bigarren pertsonarako atzikiaren bi aldaera erakusten dizkigu eta (4.-6. orr.). Hala ere, singular hurbila ez da kapitulu honetan agertzen, oso erabilera urria duelako eta dagokion atzizkia orain arte batu gabe dagoelako. Dena dela, agertzen da, eredu gisa, Nor, Nori, Nork eta Noren kasuen banakako azalpenetan.

# N O R

Nor aditzeko objektua da. Bi kasu ditu.

NOR (Absolutiboa)							
Mugagabea	Ni	Hi, Zu	Hura	Gu, Zuek	Haiek	Jokagabea	Jokatua
—	-AU	-ORI	-A	-OK	-AK	-TzEA	-LA

Aditzeko objektua da.

<p><b>LIBURU ASKO_ irakurri dut aste honetan</b></p> <p><b>ZAHAR NAIZEN<u>AU</u> edo NAIZEN<u>NOR</u> eseri egingo naiz</b></p> <p><b>nora zoaz EDER GALANTO<u>RI</u> edo GALANTO<u>R</u>?</b></p> <p><b>ZURE LAGUNA_ berandu etorri da lanera</b></p> <p><b>ZUEN AITA_ ikusi dugu gaur ikastetxean</b></p> <p><b>LANGILE GUZTI<u>OK</u> zaudete greban?</b></p> <p><b>ARDI GUZTI<u>IAK</u> itzuli dira elkarrekin</b></p> <p><b>ZAPATA<u>K</u> erosi ditugu zure dendan</b></p> <p><b>BERANDU ETORT<u>ZEA</u> erru larria da</b></p> <p><b>ZUK DIRU ASKO IRABA<u>ZTEA</u> nahi dugu</b></p> <p><b>OLARIZURA IGOKO DIRE<u>LA</u> uste dut</b></p> <p><b>GU BIOK JOAN GAITE<u>ZELA</u> esan du aitak</b></p> <p><b>badakit JONEK ERE EGIN DUE<u>LA</u></b></p>	<p>Nor mugagabea da</p> <p>Nitazko Nor singular hurbila da</p> <p>Zutazko Nor singular hurbila da.</p> <p>Nor singular urruna da</p> <p>Nor singular urruna da, baina sintsgmako azken A galdu egiten da atzizkiko A aurrean</p> <p>Gutazko Nor plural hurbila da</p> <p>Nor plural urruna da</p> <p>Nor plural urruna da, baina, singularrean gertatzen den bezala, sintagmako azken A galdu egiten da atzizkiko A aurrean</p> <p>Nor jokagabea da</p> <p>Kontsonante txistukariz edo N letraz bukatutako aditzek, -TzEA gabe, -TEA bakarrik hartzen dute</p> <p>Nor jokatua da</p> <p>Nor honetan aditza subjuntiboz jokatuta dago</p> <p>Aditz-erroari E bat eransten zaio atzizkiaren aurretik</p>
---	--

Egoera berezi bat dago Iparraldeko euskalkietan, aditz jokagabeko perpausaren nor kasua izenlagun deklinatzen dela.

**aitaREN ikustera = aitA ikustera**

Kasu guztietan, oro har, hiru eredu berezi daude; hots, atzizkia pertsona-izendordainek, erakusleek eta galdetzaileek nola hartzen duten. Nor kasuan zehazki, hirurak hiztegian agertzen diren bezala geratzen dira, bat ere letrarik erantsi gabe, nor mugagabeak direlako.

Hona hemen pertsona-izendordainak:

NI\_  
 HI\_ ala ZU\_  
 HURA\_  
 GU\_  
 ZUEK\_  
 HAIEK\_

ZU\_ telebistan ikusi zaitugu

Erakusleak hauexek ditugu.

HAU\_  
HORI\_  
HURA\_  
HAUEK\_  
HORIEK\_  
HAIEK\_

LANGILE HORI\_ nire adiskiderik minena da

Eta hauexek galdetzaileak.

NOR\_?  
ZEIN\_?  
ZER\_?  
ZENBAT\_?

NOR\_ joan da lanera?

#### NOR KASUAREN ATZIZKI BEREZIAK

<b>neuk uste dut OLARIZURA IGOKO DIRE<u>NA</u></b>	Bizkaieraz batez ere, nor sintagma galdegaia ez denean, atzizkia ez da -LA, -NA baizik
<b>DIRU ASKO IRABAZ DEZAZUN_ nahi dugu nik badakit NON EGON ZAREN_</b>	Nor hau subjuntiboz jokatuta dago, nahia adierazteko Nor-perpauzak galdera edo zalantza adierazten du (kasu honi zehar-galdera deritza)
<b>nik badakit NON DAGO<u>EN</u></b>	Nor-galdera edo zalantzak, erro edo -KE- atzean dagoenez, E lotura hartzen du
<b>ez dakit NORA JOAN_</b>	Nor-galdera jokagabea da

#### NOR KASUAREN POSTPOSIZIOAK

Nor kasuak postposizio pilo bat onartzen du. Adibidez, ikus ditzagun batzuk.

<b>berandu etorri_ ARREN</b>	
<b>berandu etorri zar<u>EN</u> ARREN</b>	
<b>diru_ BARIK</b>	DIRURIK GABE posposizioa bizkaierazko modua dugu hemengoa
<b>hori egin_ BEHARREAN</b>	
<b>ezer esan_ GABE</b>	aditzei –TzEKE ere eransten zaie: <b>ezer ESATEKE</b>
<b>bazkaldu_ ONDOREN</b>	
<b>gogor ikasi_ EZIK</b>	
<b>istripu bat ze<u>LA</u> ETA</b>	
<b>gurasoak ikusi_ ARTE</b> <sup>(5)</sup>	

<sup>(5)</sup> Posposizio hau leku-denborazko aditzondoekin non kasuari (42. or.) eransten zaio, izenezko sintagmekin nora kasuari (45. or.) eta aditz jokatuekin noren kasuari (58. or.)

NORIK (Partitiboa)							
Mugagabea						Jokagabea	Jokatua
<b>-IK</b>						<b>-TzERIK</b>	<b>-NIK</b>

Norik kasuak osotasunaren zati bat hartzen dela adierazten du eta ezezko, galderazko eta baldintzazko perpausetan erabiltzen da. Jakina, izenari dagokionez, mugagabea bakarrik onartzen du.

**hemen ez dago LAGUNIK**

Adiskideak oro har. Arras bestelakoa da sintagma hau: **hemen ez daude GUREKIN ETORRI DIREN LAGUNAK**, aurretik aipatutako lagun guztiak, nor plurala dena

**SAGU HANDIRIK ikusi duzu ganbaran?**

Ez da inongo sagu zehaztu bati buruzkoa. Osorik ezberdina da hau: **SAGU ASKO\_ ikusi duzu ganbaran?** Hemen nor mugagabea da. Bokalez amaitzen bada, R eranstean zaio atzizkiaren aurretik

**ez dugu APROBATZERIK uste**  
**Aitorrek ez du ENTZUTERIK lortu**

Jokagabea da  
Txistukariaz edo N letraz amaitzen denean -TZERIK ordez, -TERIK eranstean zaio

**ez dut esan EMANGO DIZUEDANIK**  
**nik ez diot gaixo DAGOENIK**  
**ez nuen uste ETORRIKO ZINENIK**

Jokatua da  
Aditz-erroari E eranstean zaio atzizkiaren aurretik  
Aditz jokoan N letraz amaitzen bada, atzizkiaren N letrarekin bat egiten da

Norik kasuak ez ditu determinatzaile mota batzuk onartzen; adibidez, erakusle eta galdetzailerik, eta ezin izan daiteke pertsona-izenordaina.

#### NORIK KASUAREN ATZIZKI BEREZIAK

**ez daukat ZER EGINIK**  
**ez dago NON GORDERIK**

Jokatu gabeko aditzak galdera adierazten duenean  
Aditza bokalez bukatzen bada, R eranstean zaio, atzizkiaren aurretik

#### NORIK KASUAREN POSTPOSIZIOAK

Norik kasuak postposizio bat onartzen du

**diruRIK GABE**

# N O R I

Nori kasua aditzeko hartzailea da.

<b>NORI (Datiboa)</b>							
Mugagabea	Ni	Hi, Zu	Hura	Gu, Zuek	Haiek	Jokagabea	
<b>-I</b>	<b>-ONI</b>	<b>-ORRI</b>	<b>-ARI</b>	<b>-OI</b>	<b>-EI</b>	<b>-TzEARI</b>	

**EDOZEIN GIZONI esan diezaiokezu**

**LAGUN GUTXIRI esan diot**

**zer diostazu ZAHARRONI edo ZAHARRORI?**

**LAGUN MAITEORRI edo MAITEORI emango dizkinat**

**ETXEKO ARDURADUNARI zor diogu**

**ZURE AITARI entzun diogu gaur goizean**

**ez diguzue LANGILEOI erantzun**

**HEMENGO GAZTEEI galdetu diegu**

**zer deritzazu LAPURTZEARI?**

**GOGOR IKASTEARI ekin dio**

Nori mugagabea da

Hau ere mugagabea da, baina bokalez amaitzen denez gero, R eranstean zaio atzizkiaren aurretik

Nitazko nori singular hurbila da

Hitazko nori singular hurbila da

Nori singular urruna da

Nori singular urruna ere da hau, baina azken A galdu egiten da atzizkiko A aurrean

Gutazko Nori plural hurbila da

Nori plural urruna da

Jokagabea da

Txistukari edo N letraz bukatutako aditzek -TZEARI orde, -TEARI hartzen dute

Pertsona-izenordainek honelaxe hartzen dute nori atzizki mugagabea.

**NIRI**

**HIRI ala ZURI**

**HARI**

**GURI**

**ZUEI**

**HAIEI**

**HIRI liburu hau emango diagu**

Erakusleek, mugagabeak direnez, nor kasuan ez dute letrarik hartzen, hiztegian agertzen diren bezala geratzen dira. Baina beste kasu guztietan, atzizkia erantsi baino lehen, itxura berezia hartzen dute.

**HON-**

**HORR-**

**HAR-**

**HAUE-**

**HORIE-**

**HAIE-**

Nori kasuan honelaxe geratzen dira erakusleak.

**HONI**  
**HORRI**  
**HARRI**  
**HAUEI**  
**HORIEI**  
**HAIEI**

**LAGUN HORIEIopari bana ekarri diet**

Galdetzaileak honelaxe hartzen dute nori-atzizkia.

**NORI?**  
**ZEINI?**  
**ZERI?**  
**ZENBATI?**

**ZENBATI esan diozue?**

## NORI KASUAREN POSTPOSIZIOAK

Nori kasuak postposizio batzuk onartzen ditu.

zuRI BEGIRA  
 elkarrizketa horrI BURUZ  
 adiskideOI ESKER

# N O R K

Nor kasuaren gaineko eragilea da nork kasua.

## NORK (Ergatiboa)

Mugagabea	Ni	Hi, Zu	Hura	Gu, Zuek	Haiek	Jokagabea	
<b>-K</b>	<b>-ONEK</b>	<b>-ORREK</b>	<b>-AK</b>	<b>-OK</b>	<b>-EK</b>	<b>-TzEAK</b>	

**EDURNEK** bultzatu zintuen?

**GURE LAGUN BATEK** esan du

zer egingo dut **POBREONEK** edo **POBREORK?**

ordain ezak **DIRUDUNORREK** edo **DIRUDUNORK**

**ZUZENDARIAK** eskaini dit lanpostu hau

**ARREBAK** ekarri digu kafe hau Kolonbiatik

**GASTEIZTARROK** ordaindu dituzue jaiak

**GAURKO PILOTARIEK** partidu ona egin dute

**ETENGABE ERRETZEAK** hil egingo zaitu

**NEGAR EGITEAK** ez dizu ezer konponduko

Nork mugagabea da

Kontsonantez edo diptongo itxiaz amaitzen denean E eransten zaio atzizkiaren aurretik

Nitazko nork singular hurbila da

Hitazko nork singular hurbila da

Nork singular urruna da

Nork singular urruna ere da hau, baina azken A galdu egiten da atzizkiko A aurrean

Zuetazko Nork plural hurbila da

Nork plural urruna da

Jokagabea da

Txistukari edo N letraz amaitutako aditzek, -TZEAK ordez, -TEAK hartzen du

Pertsona-izenordainek honelaxe egiten dute.

**NIK**

**HIK** ala **ZUK**

**HARK**

**GUK**

**ZUEK**

**HAIEK**

**GUK** albiste hori bagenekien

Erakusleek honelaxe hartzen dute nork atzizkia.

**HONEK**

**HORREK**

**HARK**

**HAUEK**

**HORIEK**

**HAIEK**

**ADISKIDE HONEK** badauka liburu hori

Galdetzaileak honelaxe deklinatzen dira.

**NORK?**

**ZEINEK?**

**ZERK?**

**ZENBATEK?**

**ZERK** jo nau buruan?

# O S A G A R R I A

Osagarriak ekintza gertatzen deneko inguruak adierazten ditu. Lau osagarri-mota dira.

Atributu-osagarria  
Leku-denborazko osagarriak  
Elkartasunezko osagarriak  
Moduzko osagarriak

## ATRIBUTU OSAGARRIA

Atributu-osagarria beste sintagmari aditzaren bitartez ematen zaion kalifikazioa da.

<b>ZER (Atributua)</b>							
Mugagabea			Singularra		Plurala	Jokagabea	
—			-A		-AK	-TzEA	

Izenarekin, izenondoarekin eta **nor** edo **zer** galdetzaileekin erabiltzen da.

**ZER** da neska hori?  
**ZUZENDARI** hartu naute banku horretan  
eraikin hau **LEGE**BILTZARRA da  
gurasook beti **ORDAINTZAILEAK** gara  
gure zeregina **SENDAGAI**AK **BIDALTZEA** da

Galdetzailea denez, mugagabea da  
Mugagabea da  
Singular urruna da  
Plural urruna da. **GURASOOK** plural hurbila izan  
arren, atributo plural hurbilik ez dago eta  
Jokagabea da



<b>LEKU-DENBORAZKO OSAGARRIAK</b>
-----------------------------------

Leku-denborazko osagarriak sei dira, eta gertatzen deneko lekuan edo denboran kokatzen dute ekintza.. Leku-denborazko osagarriok bizidun eta bizigabeko sintagmak bereizten dituzte.

<b>NON (Bizigabeekiko inesiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna	Jokagabea	Jokatua
<b>-TAN</b>			<b>-AN</b>	<b>-OTAN</b>	<b>-ETAN</b>	<b>-TzEAN</b>	<b>-NEAN</b>

Non kasuak ekintza lekuan edo denboran kokatzen du, non edo noiz gertatzen den adierazten du. Jarduera ere adierazten du. Bizigabeko sintagmekin eta perpausezkoekin erabiltzen da.

**ZEIN ETXETAN** bizi dira zuen gurasoak?

**EDOZEIN EGUNETAN** zatozkete nigana

**ZURE ETXEAN** badago guretzako lekuri?

**HURRENGO ASTELEHENEAN** hasiko naiz

**BIZKAIKO MENDI GUZTIETAN** daude

**AZKEN EGUNOTAN** bero handia izan da

**ETXERA ETORTZEAN** ikusi genuen

**ERRALDOIA IKUSTEAN** ikaratu zen

**ESKATU DIDAZUNEAN** etorri naiz

**ETORRI ZINETENEAN** hasi ginen lanean

**AITAK DEITZEN DUENEAN** esan egingo diot

Non mugagabea da

Non mugagabea ere, baina kontsonantez amaitzen denez gero, E eransten zaio atzizkiaren aurretik

Non singular urruna da

Singular urruna, baina E hartzen du -AN atzizkia kontsonante atzean ezin jar daitekeelako

Non plural urruna da

Non plural hurbila da

Jokagabea da

Txistukari edo N letraz amaitutako aditzek, -TZEAN ordez, -TEAN hartzen dute

Jokatua da

Adizkia (perpausezko sintagmaren azken hitza) N letraz amaitzen bada, atzizkiaren N letrarekin bat egiten da

Aditz-erroari E eransten zaie atzizkiaren aurretik

Sintagma bizigabeekin bakarrik erabiltzen denez gero, pertsonak ez dira kasu honetan deklinatzen. Dakusagun erakusleak nola deklinatzen diren.

**HONETAN**

**HORRETAN**

**HARTAN**

**HAUETAN**

**HORIETAN**

**HAIETAN**

**EGUN HAIETAN** jende gutxi etortzen zen lanera

Galdetzaileek honelaxe hartzen dute atzizkia.

**NON?**

**NOIZ?**

**ZEINETAN?**

**ZERTAN?**

**ZENBATEAN?**

**ZERTAN** ari zarat?

Leku-denborazko aditzondoak hementxe daukate bere zentzuaren egoera, non kasukoak dira. Horregatik hiztegian bezala agertzen dira.

**HEMEN\_**  
**HOR\_**  
**HAN\_**

**ATZO\_**  
**GAUR\_**  
**BIHAR\_**

**BIHAR\_ zure etxera joango naiz**

Leku-izenek bereziki hartzen dute atzizkia, mugagabeak izan arren.

**BILBON\_ ikusi dut zirko hori**  
**IRUNEN\_ egon ginen egun hartan**

Bokalez amaitutakoek -N hartzen dute  
Kontsonantez bukatutakoek, berriz, -EN

### NON KASUAREN ATZIZKI BEREZIAK

**DANTZAN\_** edo **DANTZATZEN\_ ari zara?**  
**TXINERAZ IKASTEN\_ ari dira**

Jarduera adierazten du  
N letraz bukatutako aditzek, -TZEN ordez, -TEN hartzen dute

### NON KASUAREN POSTPOSIZIOAK

Postposizio batzuk gertatzen dira non kasuan.

**errepideAN BARRENA**  
**aldapAN BEHERA**  
**kaleAN GORA**  
**basoAN ZECHAR**

Kasu berezi bat ARTE partikularena da. Aditz jokagabeekin nor kasuan egiten du postposizioa (35. or.), aditz jokatuekin noren kasuan (58. or.), izenekin nora kasuan (45. or.) eta denborazko aditzondoekin, berriz, non kasuan, aditzondo hauen izaera non kasuan datza eta.

**noiz\_ ARTE?**  
**bihar\_ ARTE**

NORENGAN (Bizidunekiko inesiboa)							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGAN</b>			<b>-ArenGAN</b>	<b>-ONGAN</b>	<b>-ENGAN</b>		

Bizigabeekiko non kasuaren kidekoa da bizidunekiko norengan kasua.

**ZENBAT GIZONENGAN daukazu konfiantza**  
**GIZON ASKOREENGAN daukazu konfiantza**

**EMAKUMEARENGAN dago etorkizuna**  
**EMAKUMEAGAN dago etorkizuna**

**IKASTOLAKO GURASOENGAN dago arazoa**  
**EUSKALDUNONGAN dago soluzioa**

Mugagabea da  
Mugagabea ere, baina bokalez amaitzen denean R hartzen du atzizkiaren aurretik  
Singular urruna da  
Honela ere (-REN- artizkia erantsi gabe ere) egin daiteke singular urruna  
Plural urruna da  
Plural hurbila da

Bizidun sintagmei bakarrik dagozkenez gero, perpausezko sintagmak ez dira hemen egokiak. Pertsona-izenordainek, berriz, honelaxe hartzen dute atzizkia.

**NireGAN**  
**HireGAN ala ZUreGAN**  
**HARENGAN**  
**GUreGAN**  
**ZUENGAN**  
**HAIENGAN**

**ZUENGAN herriko etorkizuna ikusten dugu**

Erakusleak honelaxe deklinatzen dira.

**HONENGAN**  
**HORRENGAN**  
**HARENGAN**  
**HAUENGAN**  
**HORIENGAN**  
**HAIENGAN**

**LAGUN HORRENGAN sinesten dut**

Eta galdetzaileak honelaxe.

**NORENGAN?**  
**ZEINENGAN?**  
**ZENBATENGAN?**

**NORENGAN daukazue itxaropena?**

Iparraldean batez ere bada norengan kasuaren ordezeko postposizio hau.

**ZURE BAITAN dugu etorkizuna**  
**zeure arazoak beti BESTEEN BAITAN ikusten dituzu**

**ZUreGAN** sintagmaren kidekoa da  
**BESTEENGAN** bezalakoa

NONDIK (Bizigabeekiko ablatiboa)							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna	Jokagabea	Jokatua
<b>-TATIK</b>			<b>-TIK</b>	<b>-OTATIK</b>	<b>-ETATIK</b>	<b>-TzETIK</b>	<b>-NETIK</b>

Nondik kasuak bai lekuz bai denboraz ekintzaren jatorria adierazten du, nondik edo noiztik gertatzen den. Bizigabeko izenezko sintagmekin eta perpausezkoekin erabiltzen da.

Erakusleek, galdetzaileek, leku-denborazko aditzondoek eta leku-izenek non kasuaren eskema bera jarraitzen dute. Galdetzaileekin eta denborazko aditzondoekin atzizkia -TIK edo -DANIK izan daiteke.

**HONETATIK**  
**HORRETATIK**  
**HARTATIK**  
**HAUETATIK**  
**HORIETATIK**  
**HAIETATIK**

**NONDIK?**  
**NOIZTIK?** edo **NOIZDANIK**  
**ZEINETATIK?**  
**ZERTATIK?**  
**ZENBATEtaTIK?**

**HEMENDIK**  
**BIHARDANIK**

**ORIOTIK**

**HERRI ASKOTATIK** jaitsi da jendea jaialdira Mugagabea da  
**GURE GELETATIK** entzun dugu eztanda Plural urruna da  
**ez zaitut ikusi ZURE AITA HIL ZENETIK** Jokatua da  
**ZURE ERAKUSKETA IKUSTETIK** gatoz Jokagabea da

### NONDIK KASUAREN POSTPOSIZIOAK

Nondik kasuak postposizio bat onartzen du.

ikastetxeTIK KANPO

NORENGANDIK (Bizidunekiko ablatiboa)							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGANDIK</b>			<b>-ArenGANDIK</b>	<b>-ONGANDIK</b>	<b>-ENGANDIK</b>		

Bizigabeekiko nondik kasuaren kidekoa da norengandik kasua, eta pertsona-izenordainei, erakusleei eta galdetzaileei buruzko oharpenak hemen ere baliagarriak dira.

**NireGANDIK**  
**HIreGANDIK** ala **ZUreGANDIK**  
**HARENGANDIK**  
**GUreGANDIK**  
**ZUENGANDIK**  
**HAIENGANDIK**

**HONENGANDIK**  
**HORRENGANDIK**  
**HARENGANDIK**  
**HAUENGANDIK**  
**HORIENGANDIK**  
**HAIENGANDIK**

**NORENGANDIK?**  
**ZEINENGANDIK?**  
**ZENBATENGANDIK?**

**JAIZKIRENGANDIK**

**NIRE SENARGAIARENGANDIK** jaso dut mezu bat Singular urruna da  
**IRAKASLEONGANDIK** datozkit arazo guztiak Plural hurbila da

NORA (Bizigabeekiko adlatiboa)							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna	Jokagabea	Jokatua
<b>-TARA</b>			<b>-RA</b>	<b>-OTARA</b>	<b>-ETARA</b>	<b>-TzERA</b>	<b>-NERA</b>

Nora kasuak bai lekuz bai denboraz ekintzaren norabidea aurkezten du. Sintagma bizigabeekin eta perpausezkoekin erabiltzen da.

Non kasuan egindako erakusleekiko, galdetzaileekiko eta leku-izenekiko oharrak hemen ere hartu behar ditugu kontuan. Leku-aditzondoek erroa aldatzen dute, beren izena utzirik, dagozkien erakusleetatik etorritako beste bana hartzen dutela.

**HONETARA**  
**HORRETARA**  
**HARTARA**  
**HAUETARA**  
**HORIETARA**  
**HAIETARA**

**NORA?**  
**ZEINETARA?**  
**ZERTARA?**  
**ZENBATEtaRA?**

**HONA**  
**HORRA**  
**HARA**

**BILBORA**

“ZORTZI MILAKO” **GUZTIETARA** igo dira Plural urruna da  
**MADARI BATZUK EROSTERA** etorri gara Jokagabea da

#### NORA KASUAREN ATZIZKI BEREZIA

Nora kasuak beste atzizki berezi bat onartzen du.

**HORI ESATERAKOAN** hitzik gabe geratu nintzen

#### NORA KASUAREN POSTPOSIZIOAK

Nora kasuari hurrengo postposizioa dagokio.

**ostiralERA ARTE**  
**datorren urteRA ARTE**

ARTE partikula galdetzaileekin eta denbora-aditzondoekin non kasuari eransten zaio (42. or.), jokagabeko aditzekin nor kasuari (35. or.), aditz jokatuekin noren kasuan (58. or.) eta izenekin, ordea, nora kasuari, hemen ikusi dugun bezala. Hala ere, izenekin nor kasuari ere erants dakioke, izena bai mugagabea bai mugatua izanik.

**larunbatERA ARTE** edo **larunbatA ARTE** edo **larunbat\_ ARTE**  
**ordu batA ARTE**  
**zortziAK ARTE**  
**GabonAK ARTE**

<b>NORENGANA (Bizidunekiko adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGANA</b>			<b>-ArenGANA</b>	<b>-ONGANA</b>	<b>-ENGANA</b>		

Bizidunekiko norengana kasua bizigabeekiko nora kasuaren kidekoa da.

Norengan kasuari buruz egindako oharpenak norengana kasuan ere baliagarriak dira.

**NireGANA**

**HireGANA** ala **ZUreGANA**

**HARENGANA**

**GUreGANA**

**ZUENGANA**

**HAIENGANA**

**HONENGANA**

**HORRENGANA**

**HARENGANA**

**HAUENGANA**

**HORIENGANA**

**HAIENGANA**

**NORENGANA?**

**ZEINENGANA?**

**ZENBATENGANA?**

**BENATENGANA**

**ZEIN ABOKATURENGANA** joko duzu?

**ADISKIDEENGANA** joango naiz

Mugagabea da

Plural urruna da

<b>NORAINO (Bizigabeekiko muga-adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna	Jokagabea	
<b>-TARAINO</b>			<b>-RAINO</b>	<b>-OTARAINO</b>	<b>-ETARAINO</b>	<b>-TzERAINO</b>	

Noraino kasuak ekintzaren lekuzko muga adierazten du. Sintagma bizigabeekin eta perpausezkoekin erabiltzen da.

Erakusleek, galdetzaileek eta leku-izenek nora kasuan ikusitako eskema ere jarraitzen dute.

**HONETARAINO**  
**HORRETARAINO**  
**HARTARAINO**  
**HAUETARAINO**  
**HORIETARAINO**  
**HAIETARAINO**

**NORAINO?**  
**ZEINETARAINO?**  
**ZERTARAINO?**  
**ZENBATEtaRAINO?**

**HONAINO**  
**HORRAINO**  
**HARAINO**

**ALTSASURAINO**

**MINEZ HILTZERAINO sufritu zuen**

Jokagabea da

**ZEIN SOLAIRUTARAINO igo zara oinez?**

Mugagabea da

<b>NORENGANAINO (Bizidunekiko muga-adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGANAINO</b>			<b>-ArenGANAINO</b>	<b>-ONGANAINO</b>	<b>-ENGANAINO</b>		

Bizidunekiko norenganaino kasua bizigabeekiko noraino kasuaren kidekoa da.

Norengana kasutik datorrenez gero, han ikusitako eskema bera jarraitzen du.

**NireGANAINO**  
**HireGANAINO ala ZUreGANAINO**  
**HARENGANAINO**  
**GUreGANAINO**  
**ZUENGANAINO**  
**HAIENGANAINO**

**HONENGANAINO**  
**HORRENGANAINO**  
**HARENGANAINO**  
**HAUENGANAINO**  
**HORIENGANAINO**  
**HAIENGANAINO**

**NOR(EN)GANAINO?**  
**ZEINENGANAINO?**  
**ZENBATENGANAINO?**

**IRAIDERENGANAINO**

**NAGUSIArenGANAINO eraman dut eskaria**

Singular urruna da

**HIRU JENERALENGANAINO heldu gara**

Plural urruna da

NORAKO (Bizigabeekiko adlatibo destinatiboa)							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna	Jokagabea	Jokatua
<b>-TARAKO</b>			<b>-RAKO</b>	<b>-OTARAKO</b>	<b>-ETARAKO</b>	<b>-TzEraKO</b>	<b>-N (subjuntiboa)</b>

Norako kasuak ekintzaren helburua edo xedea adierazten du, baita zerbait egiteko agindua ere. Sintagma bizigabeekin eta perpausezkoekin erabiltzen da.

Nora kasutik datorrenez, han emandako argibideak kasu honetan ere baliagarriak dira.

**HONETARAKO**  
**HORRETARAKO**  
**HARTARAKO**  
**HAUETARAKO**  
**HORIETARAKO**  
**HAIETARAKO**

**NORAKO?**  
**NOIZKO?** <sup>(6)</sup>  
**ZEINETARAKO?**  
**ZERTARAko?**  
**ZENBATEtaRAKO?**

**HONAKO**  
**HORRAKO**  
**HARAKO**  
**BIHARKO** <sup>(6)</sup>  
**BETIKO** <sup>(6)</sup>

**LAUDIORAKO**

**EDOZEIN GELATARAKO** erosi dut lanpara hau  
**GURE ETXE GUZTIETARAKO** dira teila berriak  
**GERO JATEKO** ekarri ditut opil hauek  
**LEHENBAILEHEN ETORTZEKO** esan didate  
**DIRU ASKO IRABAZ DEZAZUN** irakasten dizut

Mugagabea da  
 Plural urruna da  
 Jokagabea da, eta helburua edo xedea adierazten du  
 Jokagabea ere da, eta agindua adierazten du  
 Subjuntibokoz jokatuta dago, eta helburua edo xedea adierazten du

## NORAKO KASUAREN ATZIZKI BEREZIAK

Norako eta norengatik kasuek, jokagabeen (-TzEAGATIK eta -TzEKO) zioa edo kausa eta helburua edo xedea ere adierazten dituen atzizki berezi bat erabiltzen dute, -TzEARREN, alegia.

**ZU IKUSTEARREN** etorri naiz honen aguro  
 zer ez genuke egingo **ZU HEMEN GERATZEARREN?**

Zu ikusteko eta zu ikusteagatik  
 Zu geratzeko eta zu geratzeagatik

Bestalde, beste bi atzizki har ditzake norako kasuak, bata jokagabeen eta bestea jokatuan; biak helburua edo xedea lortu baino lehen, gertaera bat amaituta zegoela adierazteko.

**ni ETORTZERAKO** denok mozkor egongo zarete  
**konturatu ZINETENERAKO**, autobusa urrunduz zihoan

<sup>(6)</sup> Galdetzailleekin eta denbora-aditzondoekin, -RAKO ordez, -KO atzizkia eransten da.



<b>NORENGANAKO (Biziduneeikiko adlatibo destinatiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna		
<b>-ENGANAKO</b>			<b>-ArenGANAKO</b>	<b>-ONGANAKO</b>	<b>-ENGANAKO</b>		

Biziduneeikiko norenganako kasua bizigabeekiko norako kasuaren kidekoa da. Oso kasu gutxitan erabiltzen da, oso kontzeptu gutxi adierazten baitu, pertsona eta bizidunenganako helburua norentzat kasuak betetzen du eta.

**NireGANAKO**

**HireGANAKO** ala **ZUreGANAKO**

**HARENGANAKO**

**GUreGANAKO**

**ZUENGANAKO**

**HAIENGANAKO**

**HONENGANAKO**

**HORRENGANAKO**

**HARENGANAKO**

**HAUENGANAKO**

**HORIENGANAKO**

**HAIENGANAKO**

**NORENGANAKO?**

**ZEINENGANAKO?**

**ZENBATENGANAKO?**

**IRATIRENGANAKO**

oso ona da **BERE AMARENGANAKO**

maitekorrak dira **GURASOONGANAKO**

**GUreGANAKO** oso langile amorratua da

Singular urruna da

Plural hurbila da

Pertsona denez, mugagabea da

<b>NORANTZ (Bizigabeekiko joera-adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna		
<b>-TARANTZ</b>			<b>-RANTZ</b>	<b>-OTARANTZ</b>	<b>-ETARANTZ</b>		

Norantz kasuak ekintzaren lekuzko norabide abstraktua adierazten du. Sintagma bizigabeekin erabiltzen da.

Nora kasutik datorrenez gero, nora kasuan ikusitako oharrak hemen ere baliagarriak dira.

**HONETARANTZ**  
**HORRETARANTZ**  
**HARTARANTZ**  
**HAUETARANTZ**  
**HORIETARANTZ**  
**HAIETARANTZ**

**NORANTZ?**  
**ZEINETARANTZ?**  
**ZERTARANTZ?**  
**ZENBATEtaRANTZ?**

**HONANTZ**  
**HORRANTZ**  
**HARANTZ**

**GERNIKARANTZ**

**ZURE LANTEGIRANTZ joan berri da**  
**NORANTZ eramango duzue?**

Singular urruna da  
 Galdetzailea denez, mugagabea da

<b>NORENGANANTZ (Bizidunekiko joera-adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGANANTZ</b>			<b>-ArenGANANTZ</b>	<b>-ONGANANTZ</b>	<b>-ENGANANTZ</b>		

Norantz kasuaren kidekoa da, baina bizidun sintagmekin erabiltzen da.

Norengana kasuan ikusitako eskema bera erabiltzen da.

**NireGANANTZ**  
**HiireGANANTZ ala ZUreGANANTZ**  
**HARENGANANTZ**  
**GUreGANANTZ**  
**ZUENGANANTZ**  
**HAIENGANANTZ**

**HONENGANANTZ**  
**HORRENGANANTZ**  
**HARENGANANTZ**  
**HAUENGANANTZ**  
**HORIENGANANTZ**  
**HAIENGANANTZ**

**NORENGANANTZ?**  
**ZEINENGANANTZ?**  
**ZENBATENGANANTZ?**

**MAIKARENGANANTZ**

**LAGUNONGANANTZ hurbildu ziren**  
**NORENGANANTZ JOAN ZARETE?**

Plural hurbila da  
 Galdetzailea denez, mugagabea da

<b>ELKARTASUNEZKO OSAGARRIAK</b>
----------------------------------

Hiru dira, eta ekintzak edo honen partaideek besteekin duten erlazioa adierazten dute. Honelako osagarriek ez dute bereizten bizidun edo bizigabeko sintagmak diren.

<b>NOREKIN (Soziatiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna		
<b>-EKIN</b>			<b>-AREKIN</b>	<b>-OKIN</b>	<b>-EKIN</b>		

Norekin kasuak ekintza gertatzen deneko lagunartea adierazten du; pertsona, espazio edo denborazko lagunartea. Bizkaieraz -GAZ atzizkia erabiltzen da.

**NIREKIN****HIREKIN** ala **ZUREKIN****HAREKIN****GUREKIN****ZUEKIN****HAIEKIN****HONEKIN****HORREKIN****HAREKIN****HAUEKIN****HORIEKIN****HAIEKIN****NOREKIN?****ZEINEKIN?****ZENBATEKIN?****INAKIREKIN****ANDREGAIAREKIN** joango naiz zinemara**Zure alaba GUREKIN** dago lanean

Singular urruna da

Pertsona denez, mugagabea da

<b>NOREKIN KASUAREN POSTPOSIZIOAK</b>
---------------------------------------

Norekin kasuak postposizio bat onartzen du.

**Agiri haueKIN BATERA**

NORENTZAT (Xedezko Destinatiboa)							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENTZAT</b>			<b>-ARENTZAT</b>	<b>-ONTZAT</b>	<b>-ENTZAT</b>		

Norentzat kasuak ekintzaren jasotzailea adierazten du.

**NIRETZAT**

**HIRETZAT** ala **ZURETZAT**

**HARENTZAT**

**GURETZAT**

**ZUENTZAT**

**HAIENTZAT**

**HONENTZAT**

**HORRENTZAT**

**HARENTZAT**

**HAUENTZAT**

**HORIENTZAT**

**HAIENTZAT**

**NORENTZAT?**

**ZEINENTZAT?**

**ZENBATENTZAT?**

**MIRENENTZAT**

**ZENBAIT LAGUNENTZAT** ekarri ditut liburu batzuk

**ZENBATENTZAT** daukagu janaria?

Mugagabea da

Galdetzailea denez, mugagabea da

NORENGATIK (Motibatiboa)							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek	Jokagabea	Jokatua
<b>-ENGATIK</b>			<b>-ArenGATIK</b>	<b>-ONGATIK</b>	<b>-ENGATIK</b>	<b>-TzEAGATIK</b>	<b>-LAKO</b>

Norengatik kasuak ekintzaren zioa adierazten du.

NireGATIK  
HIreGATIK ala ZUreGATIK  
HARenGATIK  
GUreGATIK  
ZUENGATIK  
HAIENGATIK

HONENGATIK  
HORRENGATIK  
HARenGATIK  
HAUENGATIK  
HORIENGATIK  
HAIENGATIK

NOR(EN)GATIK?  
ZEINENGATIK?  
ZERGATIK?  
ZENBATENGATIK?  
ESTIBALIZENGATIK

**ZURE OSASUNArenGATIK etorri naiz honen aguro lanetik ez zaituzte GURASOONGATIK bota **NAHI IZAN DUGULAKO egin dugu hori****

Singular urruna da  
 Plural hurbila da  
 Jokatua da

### NORENGATIK KASUAREN ATZIZKI BEREZIA

Norengatik eta norako kasuek, jokagabea (-TzEAGATIK eta -TzEKO) zioa edo kausa eta helburua edo xedea ere adierazten dituen atzizki berezi bat erabiltzen dute, -TzEARREN, alegia.

**ZU IKUSTEARREN etorri naiz honen aguro zer ez genuke egingo ZU HEMEN GERATZEARREN?**

Zu ikusteko eta zu ikusteagatik  
 Zu geratzeko eta zu geratzeagatik

### NORENGATIK KASUAREN PREPOSIZIOAK ETA POSTPOSIZIOAK

Hein jokatuan (hots, aditz jokatua daukan mendeko perpausa denean) -LAKO atzizkiaren ordez ZEREN (ETA) preposizioa ere erabiltzen da kideko. Preposizio hau perpausaren hasieran jarrita, aditza BAIT-aurrizkiaz edo -N atzizkiaz osatzen da. Preposizio hau perpaus luzeetan, batez ere, erabiltzen da.

**zugana nator, ZEREN (ETA) LEHEN INSTANTZIAKO EPAITEGIAK ETZI HARA JOATEKO GUTUN BAT BIMALI BAITIT edo DIDAN**

Bestalde, -LAKO baino indar txikixeagoa adierazteko, BAIT- aurritzia edo ETA postposizioa erabiltzen dira, biak baliokideak izanik.

**ez dizut zorra ordaindu EZ BAITAUKAT DIRURIK  
 ez dizut zorra ordaindu DIRURIK EZ DAUKAT ETA**

<b>MODUZKO OSAGARRIAK</b>
---------------------------

Bi osagarri dira.

<b>NOLA (Instrumentala)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna	Jokagabea	Jokatua
<b>-taZ</b>			<b>-AZ</b>	<b>-OZ</b>	<b>-EZ</b>	<b>-tzeaZ</b>	<b>-NEZ</b>

Ekintza egiten den modua edo tresna adierazten du, baita solasgaia ere.

Modu-aditzondoak hementxe daukate beren zentzu-lekua, kasu honetakoak dira. Horregatik kasu honetan hiztegia agertzen diren bezala geratzen dira.

**ARIN\_**  
**ONGI\_**  
**ASTIRO\_**

**NITAZ**  
**HITAZ** ala **ZUTAZ**  
**HARTAZ**  
**GUTAZ**  
**ZUETAZ**  
**HAIETAZ**

**HONETAZ**  
**HORRETAZ**  
**HARTAZ**  
**HAUETAZ**  
**HORIETAZ**  
**HAIETAZ**

**NORTAZ?**  
**ZEINetaZ?**  
**ZEREZ?** edo **ZERTAZ?**  
**ZENBATEtaZ?**

gaur **OINEZ** etorri gara lanera  
nire anaiak **EZKERRAZ** idazten eta jaten du  
**HITAZ** ari gintunan  
zuk esan **DIGUZUNEZ** egin dugu

Mugagabea da  
Singular urruna da  
Mugagabea da  
Jokatua da

<b>NOLA KASUAREN ATZIZKI BEREZIAK</b>
---------------------------------------

eskopeta besoetan **ZERAMALA** hurbildu zitzaidan      Jarrera-modua adierazten du

<b>NOLA KASUAREN POSTPOSIZIOAK</b>
------------------------------------

Nola kasuak postposizio hauexek onartzen ditu.

atzoko**EZ** **BESTALDE**  
zue**TAZ** **GAINERA**  
langilea izan**EZ** **GERO**  
langilea naizen**EZ** **GERO**

<b>NORTZAT (Prolatiboa)</b>								
Mugagabea								
<b>-TZAT</b>								

Nortzat kasuak ekintza egiten deneko itxura edo ustea adierazten du, eta beti mugagabea da.

**NORTZAT?**

**ZERTZAT?**

**NORTZAT hartu zaitu nire aitak?**

**ONTZAT eman didate lana**

**ikastetxean AHULTZAT naukate**

Mugagabea da

Berdin

Berdin

# IZENLAGUNA

Izenlagun edo zeingarria azpisintagma da, perpauseko edozein sintagma deklinagarriren edo beste izenlagun baten determinatzailea da. Lau izenlagun-mota dira.

Erlatibozko izenlaguna.

Lekuzko edo denborazko izenlagunak (dagozkien osagarrietatik datozenak)

Elkartasunezko izenlagunak (berdin)

Moduzko izenlagunak (berdin)

## ERLATIBOZKO IZENLAGUNA

Erlatibozko izenlagunak pertsona, gauza edo ekintza baten erlazio zuzena adieraziz determinatzen du muina.

### NOREN (Erlatiboa)

Mugagabea	Ni	Hi, Zu	Hura	Gu, Zuek	Haiek	Jokagabea	Jokatua
<b>-EN</b>	<b>-ONEN</b>	<b>-ORREN</b>	<b>-AREN</b>	<b>-ON</b>	<b>-EN</b>	<b>-TzEAREN</b>	<b>-N</b>

Norbaitekiko edo zerbaitekiko erlazio zuzena nahitaez jabetzaren kidea ez izan arren, edutezkoa edo posesiboa ere deitzen zaio izenezko izenlagunari, eta erlatiboa perpausezkoari. Adibidez,

**NIRE aita**

**NIRE lantokia**

Bi sintagmek ez dute jabetza adierazten, erlazio zuzena baizik.

**NIRE etxean**            Baina alokatuta bizi naiz

**GURE lantegia**        Baina langileak gara, ez ugazaba

Noren-izenlaguna nor, nori eta nork sintagmetatik dator.

**LIBURUAREN** egileari ...

Liburua norbaitek idatzia: nor

**AZKUEREN** omenaldian ...

Azkeri omenaldi bat egingo zaio: nori

**EDURNEREN** festara ...

Edurnek festa bat antolatu du: nork

Noren kasuaren adibideak.

**LANGILE ASKOREN** etorkizuna ...

**GIZAJOONEN** edo **GIZAJOOREN** minak ...

**ADISKIDE MINORREN** edo **MINOREN** eskaria ...

**ZUZENDARIAREN** erabakiari ...

**EUSKALDUN GAZTE GUZTION** arazoak ...

**IRAKASLE GUZTIEN** aburuz ...

**ETXE GUZTIAK SALTZEAREN** alde ...

**GAUR KONPONDU DITUGUN** arazoak ...

Mugagabea da

Nitazko singular hurbila da

Zutazko singular hurbila da

Singular urruna da

Plural hurbila da

Plural urruna da

Jokagabea da

Jokatua da



Pertsona-izenordainek honela hartzen dute mugagabeko atzizkia.

**NIRE** (edo **ENE**)

**HIRE** ala **ZURE**

**HAREN**

**GURE**

**ZUEN**

**HAIEN**

**GURE ikastolan ...**

Honela egiten dute erakusleek.

**HONEN**

**HORREN**

**HAREN**

**HAUEN**

**HORIEN**

**HAIEN**

**ZAHAR HORIEN etxeraino ...**

Galdetzaileak honela deklinatzen dira.

**NOREN?**

**ZEINEN?**

**ZEREN?**

**ZENBATEN?**

**NOREN liburuak ...?**

<b>NOREN KASUAREN ATZIZKI BEREZIAK</b>
--

**BART LORIK EGIN EZ DUELAKO aztarna...** Nor jokatuari noren-atzizkia eransten zaio; kasu honetan erro edo -KE- atzean dagoenez gero, E bat ezartzen da

Bestalde, erlatiboazko perpauseko aditz jokatuari -N atzizkia eransten zaiola ikusi dugu. Baina isilekoa perpaus erlatiboaren nor bada eta aditzaren aspektua burutua bada, jokatu gabeko aditzari -TAKO atzizkia eransten zaio (L edo N atzetik -DAKO atzizkia).

**GAUR KONPONDU DITUGUN arazoak ...**

**GAUR KONPONDUTAKO arazoak ...**

Ekintza burutua, isilekoa KONPONDU aditzeko nor da

**NIRI EMAN DIZKIDATEN opariak ...**

**NIRI EMANDAKO opariak ...**

Kasu bera, baina aditza Nz bukatzen da

Isilekoa Nor ez bada, edo aditzaren aspektua burutua ez bada, ezin erabil daiteke aditz jokagabeko atzizki hau.

<b>BIHAR KONPONDUKO DITUGUN arazoak ...</b>	Ez dauka beste modurik, KONPONDU aditzaren aspektua gertakizuna delako
<b>NIRI OPARIAK EMAN DIZKIDATEN lagunak ...</b>	Ez dauka beste aukerarik, (lagunek) isilekoa EMAN aditzaren nork delako

Hemen ere berriro argi eta garbi ikusten da “subjektu” adigaia euskararena ez dela. Ikus itzagun bi “subjektu” isileko, **bazkide** eta **bezero**; batean jokatu gabe eman daiteke aditza, eta bestean ez, biak “subjektuak” izan arren, **bazkide** erlatiboko NOR da eta **bezero** erlatiboko NORK.

<b>BERANDU ETORRI DIREN BAZKIDEAK</b>	edo	<b>BERANDU ETORRITAKO BAZKIDEAK</b>
<b>LIBURUAK ESKATU DITUEN BEZEROA</b>	ezin:	<b>LIBURUAK ESKATUTAKO BEZEROA</b>

### NOREN KASUAREN PREPOSIZIOAK ETA POSTPOSIZIOAK

Noren-izenlagunak postposizio pilo bat onartzen du. Adibidez, ikus ditzagun batzuk.

<b>etxe(AREN) AURREAN</b>	Baita <b>ATZEAN, GAINEAN, INGURUAN</b> , etab., leku eta denborazko beste antzekoak ere
<b>nire adiskideEN ALDE</b>	Eta <b>AURKA, KONTRA</b>
<b>zuzendariAREN ORDEZ</b>	
<b>metodu horrEN BIDEZ</b>	Eta <b>BITARTEZ</b> , kidekoa
<b>lanean ari naizEN BITARTEAN</b>	Eta antzekoak
<b>telefonoz deitu dueN ARTE</b>	Aditz jokatuak izenlagunaren bidez egiten dute <b>ARTE</b> partikulako postposizioa

Hein jokatuan (hots, azalpenezko erlatiboa denean edota erlatibo-perpauza luzea denean) “ZEIN deklinatua” erabiltzen da. Preposizio hau perpauzaren hasieran mugagabe jarrita, aditza BAIT- aurrizkiaz, edo preposizioa mugatuta, -N atzizkiaz osatzen da.

**auto honek, ZEIN ORAIN DELA HAMABI URTE ADISKIDE BATI BIGARREN ESKUKO EROSI BAINION, ...**  
**pilota-apustua, ZEINEAN ZEURE DIRU OSOA XAHUTU DUZUN, ...**  
**nire senargaia, ZEINEKIN EGUN ASKOTAN LANETIK ATERATZEAN ZURE TABERNAN BAZKALDU BAITUT, ...**  
**hemengo lankideekin, ZEINEI GEURE ARAZOA ARGI ETA GARBI JAKINARAZI DIEGUN, ...**

<b>LEKU-DENBORAZKO IZENLAGUNAK</b>
------------------------------------

Leku eta denborazko izenlagunak dagozkien osagarrietatik datoz, -KO atzizkia hartuz.

<b>NONGO (Bizigabeekiko inesiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna	Jokagabea	Jokatua
<b>-TAKO</b>			<b>-KO</b>	<b>-OTAKO</b>	<b>-ETAKO</b>	<b>-TzEKO</b>	<b>-NEKO</b>

Determinatzen duen sintagma lekuan edo denboran kokatzen du. Non-osagarritik dator, horregatik osagarri horretan egindako oharpenak hemen ere baliagarriak dira. L eta N letren atzetik, -KO beharrea, -GO eransten da. Ez da bizidun sintagmekin erabiltzen, horretarako noren kasua erabiltzen da.

HONETAKO  
HORRETAKO  
HARTAKO  
HAUETAKO  
HORIETAKO  
HAIETAKO

NONGO?  
NOIZKO?  
ZEINETAKO?  
ZERTAKO?

HEMENGO  
HORKO  
HANGO

ATZOKO  
GAURKO  
BIHARKO

LASARTEKO

HERRI HAUETAKO iturrietatik ...  
ENPARANTZAKO zuhaitza ...  
AZKEN URTEOTAKO aurrerapenetan ...  
ZUEK IKUSTEKO irrikaz ...  
GOIZEAN IKUSI ZAITUDANEKO tabernara ...  
ATZOKO egunkarian ...

Mugagabea da  
 Singular urruna da  
 Plural hurbila da  
 Jokagabea da  
 Jokatua da  
 Denborazko aditzondoa da

<b>NONGO KASUAREN ATZIZKI BEREZIAK ETA POSTPOSIZIOAK</b>
--

Kualitate edo kantitatea adierazten duten nor kasutik datozen sintagmei -KO atzizki singular urruna beti eransten die nongo kasuak.

BI METROKO erregela behar duzue  
BIHOTZ ONEKO gizona zen

Bi metro (nor) dituen erregelak  
Bihotz ona (nor) zuen gizonak

Nongo kasuak postposizio batzuk onartzen ditu, baita posposizio hauek ordeztzen dituzten atzizki bereziak ere.

ZURE AITA HILTZEAR dago  
GAUZA HAUEK SALTZEKOTAN etorri gara  
IRABAZI DUDALAKOAN zorion eman dit

= hiLTZEKO ZORIAN  
 = salTZEKO ASMOTAN  
 = dudaLAKO USTEAN

<b>NONDIKO (Bizigabeekiko ablatiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna		
<b>-TATIKO</b>			<b>-TIKO</b>	<b>-OTATIKO</b>	<b>-ETATIKO</b>		

Nondik osagarritik dator, eta determinatzen duen sintagmaren leku edo denborazko jatorria adierazten du. Sintagma bizigabeekin erabiltzen da. Nondik osagarrian ikusi den eskema bera du, hango oharrak baliagarriak dira, eta nondik kasuan bezala, denbora-galdetzaile eta aditzondoek -TIKO edo -DANIKO atzizkiak hartzen dituzte.

**HONETATIKO**  
**HORRETATIKO**  
**HARTATIKO**  
**HAUETATIKO**  
**HORIETATIKO**  
**HAIETATIKO**

**NONDIKO?**  
**NOIZTIKO?** edo **NOIZDANIKO?**  
**ZEINETATIKO?**  
**ZERTATIKO?**  
**ZENBATEtatiKO?**

**HEMENDIKO**  
**ATZOTIKO** edo **ATZODANIKO**

**LEKUNBERRITIKO**

**MENDIETATIKO** ura ...  
**BERGARATIKO** autobusaz ...

Plural urruna da  
Leku-izena da

<b>NORENGANDIKO (Bizidunekiko ablatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGANDIK</b>			<b>-ArenGANDIK</b>	<b>-ONGANDIK</b>	<b>-ENGANDIK</b>		

Norengandik osagarritik dator, eta nondiko kasuaren kidekoa da, baina bizidun sintagmekin erabiltzekoa.

**NireGANDIKO**  
**HireGANDIKO** ala **ZUreGANDIKO**  
**HARENGANDIKO**  
**GureGANDIKO**  
**ZUENGANDIKO**  
**HAIENGANDIKO**

**HONENGANDIKO**  
**HORRENGANDIKO**  
**HARENGANDIKO**  
**HAUENGANDIKO**  
**HORIENGANDIKO**  
**HAIENGANDIKO**

**NORENGANDIKO?**  
**ZEINENGANDIKO?**  
**ZENBATENGANDIKO?**

**ANDONIRENGANDIKO**

**ERROMATARRENGANDIKO** zuzenbidea ...  
**HAURTXO HORIENGANDIKO** maitasunak ...

Plural urruna da  
Mugagabea da

<b>NORAKO (Bizigabeekiko adlatiboa eta adlatibo destinatiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna	Jokagabea	Jokatua
<b>-TARAKO</b>			<b>-RAKO</b>	<b>-OTARAKO</b>	<b>-ETARAKO</b>	<b>-TzEKO</b>	<b>-NERAKO</b>

Norako kasua nora eta norako kasuetatik dator eta sintagma bizigabeekin erabiltzen da. Beraz, datorrenetiko osagarrien eskema bera du. Norako osagarrian ikusi dugunez, denbora-galdetzaile eta aditzondoei -RAKO beharrea, -KO eransten zaie.

**HONETARAKO**  
**HORRETARAKO**  
**HARTARAKO**  
**HAUETARAKO**  
**HORIETARAKO**  
**HAIETARAKO**

**NORAKO?**  
**NOIZKO?**  
**ZEINETARAKO?**  
**ZERTARAKO?**  
**ZENBATEtaRAKO?**

**HONAKO**  
**HORRAKO**  
**HARAKO**  
**BIHARKO**  
**BETIKO**

**ARAIARAKO**

**NIRE HERRIRAKO** autobusean ...  
**BIHAR GOIZEAN EGITEKO** lanak ...  
**SARI HORIETARAKO** oparietan ...

Singular urruna da  
 Jokagabea da  
 Mugagabea da

<b>NORENGANAKO (Bizidunekiko adlatiboa eta adlatibo destinatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGANAKO</b>			<b>-ArenGANAKO</b>	<b>-ONGANAKO</b>	<b>-ENGANAKO</b>		

Norenganako izenlaguna norengana eta norenganako kasuetatik datorrenez, eskema bera hartzen du. Bizidun sintagmekin erabiltzen da.

**NIreGANAKO**  
**HIreGANAKO** ala **ZUreGANAKO**  
**HARENGANAKO**  
**GUreGANAKO**  
**ZUENGANAKO**  
**HAIENGANAKO**

**HONENGANAKO**  
**HORRENGANAKO**  
**HARENGANAKO**  
**HAUENGANAKO**  
**HORIENGANAKO**  
**HAIENGANAKO**

**NORENGANAKO?**  
**ZEINENGANAKO?**  
**ZENBATENGANAKO**

**TXOMINENGANAKO**

**ADISKIDEENGANAKO** zintzotasunari ...  
**GUreGANAKO** amultsutasunari ...

Plural urruna da  
 Mugagabea da

<b>NORAINOKO (Bizigabeekiko muga-adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna		
<b>-TARAINOKO</b>			<b>-RAINOKO</b>	<b>-OTARAINOKO</b>	<b>-ETARAINOKO</b>		

Norainoko kasua noraino osagarritik datorrenez gero, beraren eskema hartzen du. Bizigabeko sintagmek erabiltzen dute.

HONETARAINOKO  
HORRETARAINOKO  
HARTARAINOKO  
HAUETARAINOKO  
HORIETARAINOKO  
HAIETARAINOKO

NORAINOKO?  
ZEINETARAINOKO?  
ZERTARAINOKO?  
ZENBATEtaRAINOKO?

HONAINOKO  
HORRAINOKO  
HARAINOKO

DURANGORAINOKO

**NIRE ETXERAINOKO** bidean ...

Singular urruna da

**BASELIZA HARTARAINOKO** aldapa ...

Mugagabea da

<b>NORENGANAINOKO (Bizidunekiko muga-adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGANAINOKO</b>			<b>-ArenGANAINOKO</b>	<b>-ONGANAINOKO</b>	<b>-ENGANAINOKO</b>		

Norenganainoko izenlaguna norenganaino osagarritik dator, beraren eskema hartzen du eta bizidun sintagmek erabiltzen dute.

NireGANAINOKO  
HireGANAINOKO ala ZUreGANAINOKO  
HARENGANAINOKO  
GUreGANAINOKO  
ZUENGANAINOKO  
HAIENGANAINOKO

HONRENGANAINOKO  
HORRENGANAINOKO  
HARENGANAINOKO  
HAUENGANAINOKO  
HORIENGANAINOKO  
HAIENGANAINOKO

NORENGANAINOKO?  
ZEINRENGANAINOKO?  
ZENBATRENGANAINOKO?

ITZIARRENGANAINOKO

**ERREGE HORRENGANAINOKO** eskariak ...

Mugagabea da

**ARAFATRENGAINOKO** proposamenen ...

Izen berezia denez, mugagabea da

<b>NORANZKO (Bizigabeekiko joera-adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna		
<b>-TARANZKO</b>			<b>-RANZKO</b>	<b>-OTARANZKO</b>	<b>-ETARANZKO</b>		

Noranzko izenlaguna norantz osagarritik datorrenez, beraren eskema harturik sintagma bizigabeekin erabiltzen da.

HONETARANZKO  
HORRETARANZKO  
HARTARANZKO  
HAUETARANZKO  
HORIETARANZKO  
HAIETARANZKO

NORANZKO  
ZEINETARANZKO  
ZERTARANZKO  
ZENBATEtaRANZKO

HONANZKO  
HORRANZKO  
HARANZKO

OIONERANZKO

EZKERRETARANZKO geziari ...  
ITSASO HAIETARANZAKO haizeak ...

Mugagabea da  
Erakuslea da, beraz mugagabea

<b>NORENGANANZKO (Bizidunekiko joera-adlatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Pl. urruna		
<b>-ENGANANZKO</b>			<b>-ArenGANANZKO</b>	<b>-ONGANANZKO</b>	<b>-ENGANANZKO</b>		

Norengananzko kasua norenganantz osagarritik datorrenez gero, osagarriaren eskema bera du eta bizidun sintagmek erabiltzen dute.

NireGANANZKO  
HireGANANZKO ala ZUreGANANZKO  
HARENGANANZKO  
GUREGANANZKO  
ZUENGANANZKO  
HAIENGANANZKO

HONENGANANZKO  
HORRENGANANZKO  
HARENGANANZKO  
HAUENGANANZKO  
HORIENGANANZKO  
HAIENGANANZKO

NORENGANANZKO?  
ZEINENGANANZKO?  
ZENBATENGANANZKO?

ANERENGANANZKO

AFRIKARRENGANANZKO laguntza ...  
NORENGANANZKO otoitzak ...

Plural urruna da  
Mugagabea da

<b>ELKARTASUNEZKO IZENLAGUNAK</b>
-----------------------------------

Elkartasunezko izenlagunak elkartasunezko osagarrietatik datoz, -KO atzizkia erantsirik. Izenlagun hauek bizidun eta bizigabeko sintagmekin erabiltzen dira.

<b>NOREKIKO (Soziatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-EKIKO</b>			<b>-AREKIKO</b>	<b>-OKIKO</b>	<b>-EKIKO</b>		

Norekiko izenlaguna norekin osagarrietatik dator, eta beraren eskema hartzen du..

**NireKIKO**

**HIreKIKO** ala **ZUreKIKO**

**HAREKIKO**

**GUreKIKO**

**ZUEKIKO**

**HAIEKIKO**

**HONEKIKO**

**HORREKIKO**

**HAREKIKO**

**HAUEKIKO**

**HORIEKIKO**

**HAIEKIKO**

**NOREKIKO?**

**ZEINEKIKO?**

**ZENBATEKIKO?**

**ZURINEREKIKO**

**GURASOOKIKO** harremanetan ...

**LAGUN HAUEKIKO** elkarrizketak ...

Plural hurbila da

Mugagabea da



<b>NORENTZAKO (Xedezko destinatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Pl. hurbila	Pl. urruna		
<b>-ENTZAKO</b>			<b>-ARENTZAKO</b>	<b>-ONTZAKO</b>	<b>-ENTZAKO</b>		

Norentzako izenlaguna norentzat osagarritik datorrenez gero, beraren eskema hartzen du.

**NIRETZAKO**

**HIRETZAKO** ala **ZURETZAKO**

**HARENTZAKO**

**GURETZAKO**

**ZUENTZAKO**

**HAIENTZAKO**

**HONENTZAKO**

**HORRENTZAKO**

**HARENTZAKO**

**HAUENTZAKO**

**HORIENTZAKO**

**HAIENTZAKO**

**NORENTZAKO?**

**ZEINENTZAKO?**

**ZENBATENTZAKO?**

**JOSEBARENTZAKO**

**NIRE LAGUN GUZTIONTZAKO** opariak ...

**HIRETZAKO** lanei ...

Plural hurbila da

Mugagabea da

<b>NORENGATIKO (Motibatiboa)</b>							
Mugagabea			Hura	Gu, Zuek	Haiek		
<b>-ENGATIKO</b>			<b>-ArenGATIKO</b>	<b>-ONGATIKO</b>	<b>-ENGATIKO</b>		

Norengatiko kasua norengatik osagarritik dator, eskema bera harturik.

**NireGATIKO**

**HireGATIKO** ala **ZUreGATIKO**

**HARenGATIKO**

**GUreGATIKO**

**ZUENGATIKO**

**HAIENGATIKO**

**HONENGATIKO**

**HORRENGATIKO**

**HARenGATIKO**

**HAUENGATIKO**

**HORIENGATIKO**

**HAIENGATIKO**

**NORENGATIKO?**

**ZEINENGATIKO?**

**ZERGATIKO?**

**ZENBATENGATIKO?**

**PUIRENGATIKO**

**GAIXOTASUN LARRIENGATIKO** bajei ...

**ISTRIPU HORIENGATIKO** galerak ...

Plural urruna da

Mugagabea da

<b>MODUZKO IZENLAGUNA</b>
---------------------------

Nola osagarritik datorren instrumentala bakarrik dago, -KO atzizkia harturik.

<b>NOLAKO (Instrumentala)</b>							
Mugagabea			Singularra	Pl. hurbila	Pl. urruna		
<b>-taZKO</b>			<b>-AZKO</b>	<b>-OTAKO</b>	<b>-EZKO</b>		

Nolako izenlaguna nola osagarritik dator. Beraz, eskema bera erabiltzen du.

**NITAZKO**

**HITAZKO** ala **ZUTAZKO**

**HARTAZKO**

**GUTAZKO**

**ZUETAZKO**

**HAIETAZKO**

**HONETAZKO**

**HORRETAZKO**

**HARTAZKO**

**HAUETAZKO**

**HORIETAZKO**

**HAIETAZKO**

**NORTAZKO?**

**ZEINetaZKO?**

**ZEREZKO?** edo **ZERTAZKO?**

**ZENBATEtaZKO?**

**BURDINAZKO** tresnak ...

Mugagabea da

## SINTAGMA DEKLINAGARRIRAKO LOTURA

Atal honetan kasu banaka ikusi dugunez, batzuetan sintagma deklinagarriek deklinabide-atzizkia zuzenean hartzen dute.

<b>herri</b>	<b>+ko</b>	<b>→</b>	<b>herriko</b>	nongo singular urruna
<b>mendi</b>	<b>+etara</b>	<b>→</b>	<b>mendietara</b>	nora plural urruna
<b>Imanol</b>	<b>+ekin</b>	<b>→</b>	<b>Imanolekin</b>	norekin mugagabea

Beste batzuetan, ordea, sintagma eta atzizkiaren artean lokarri bat jarri behar da.

<b>adiskide</b>	<b>+entzat</b>	<b>→</b>	<b>adiskideRentzat</b>	norentzat mugagabea
<b>komun</b>	<b>+tik</b>	<b>→</b>	<b>komunEtik</b>	nondik singular urruna
<b>sar(tu)</b>	<b>+agatik</b>	<b>→</b>	<b>sarTZEagatik</b>	norengatik jokagabea

Ikus dezagun lehendabizi izenezko sintagmetan nola egiten den.

## IZENEZKO SINTAGMETAN

① Izenezko sintagma deklinagarria bokalez bukatu eta atzizkia kontsonantez hasten bada, zuzenean lotzen dira, ahoskatzeko oztoporik ez dago eta..

<b>iturri</b>	<b>+ra</b>	<b>→</b>	<b>iturrira</b>	nora singular urruna
<b>mendi</b>	<b>+tatik</b>	<b>→</b>	<b>menditatik</b>	nondik mugagabea
<b>gorri</b>	<b>+ko</b>	<b>→</b>	<b>gorriko</b>	nongo singular urruna

② Alderantziz, sintagma kontsonantez bukatu eta atzizkia bokalez hasiz gero, zuzenean lotzen dira, ahoskatzeko oztoporik ez baitago.

<b>urdin</b>	<b>+en</b>	<b>→</b>	<b>urdinen</b>	noren mugagabea edo plural urruna
<b>Mikel</b>	<b>+i</b>	<b>→</b>	<b>Mikeli</b>	nori mugagabea
<b>egun</b>	<b>+otan</b>	<b>→</b>	<b>egunotan</b>	non plural hurbila

- Salbuespena non singular urrunean dugu: sintagma eta -AN atzizkiaren artean E lokarria jarri behar da, -AN atzizkiari silaba osoa uzteko

<b>larunbat</b>	<b>+an</b>	<b>→</b>	<b>larunbatEan</b>	(la-run-ba-te- <u>an</u> )
<b>bost</b>	<b>+an</b>	<b>→</b>	<b>bostEan</b>	(bos-te- <u>an</u> )
<b>ubel</b>	<b>+an</b>	<b>→</b>	<b>ubelEan</b>	(u-be-le- <u>an</u> )

③ Sintagma bokalez bukatu eta atzizkia bokalez ere hasten bada, zuzenean lotzen dira, ahoskatzeko oztoporik ez dagoenez gero.

<b>katu</b>	<b>+a</b>	<b>→</b>	<b>katua</b>	nor singular urruna
<b>eskale</b>	<b>+ei</b>	<b>→</b>	<b>eskaleei</b>	nori plural urruna
<b>seme</b>	<b>+okin</b>	<b>→</b>	<b>semeokin</b>	norekin plural hurbila

- Salbuespena mugagabeen bakarrik gertatzen da: mugagabeen bi bokalen artean, R lokarria erantsi behar da eta.

<b>aita</b>	<b>+ekin</b>	<b>→</b>	<b>aitaRekin</b>	norekin mugagabea
<b>ikasle</b>	<b>+ik</b>	<b>→</b>	<b>ikasleRik</b>	norik mugagabea
<b>kultura</b>	<b>+i</b>	<b>→</b>	<b>kulturaRi</b>	nori mugagabea

E adibidea

- Kasu berezia dira Az bukatzen diren sintagmena, bokalez ere hasitako atzizkien aurrean (mugagabeen izan ezik, ik. aurreko adibideak) bere A hori galtzen dute eta.

<b>ama</b>	<b>+aren</b>	<b>→</b>	<b>amaren</b>	noren singular urruna
<b>egia</b>	<b>+etatik</b>	<b>→</b>	<b>egietatik</b>	nondik plural urruna
<b>anaia</b>	<b>+ok</b>	<b>→</b>	<b>anaio</b>	nor edo nork plural hurbila

Kasu berezi honetan –A galdu duen sintagma eta non singular urruneko atzizkia zuzenean lotzen dira.

<b>alegia</b>	<b>+an</b>	<b>→</b>	<b>alegian</b>
<b>harrokeria</b>	<b>+an</b>	<b>→</b>	<b>harrokerian</b>
<b>eliza</b>	<b>+an</b>	<b>→</b>	<b>elizan</b>
<b>zerrenda</b>	<b>+an</b>	<b>→</b>	<b>zerrendan</b>

- ④ Sintagma kontsonantez bukatu eta atzizkia kontsonantez ere hasiz gero, bien artean E lokarria jarri behar da, ahoskatzeko oztopoa gainditzeko.

<b>haritz</b>	<b>+k</b>	<b>→</b>	<b>haritzEk</b>	nork mugagabea
<b>ostiral</b>	<b>+tik</b>	<b>→</b>	<b>ostiralEtik</b>	nondik singular urruna
<b>haran</b>	<b>+tan</b>	<b>→</b>	<b>haranEtan</b>	non mugagabea

- Kasu berezi bat dugu mugagabeko nortzat osagarrian, atzizkia beti zuzenean eransten zaio eta.

<b>seme</b>	<b>+tzat</b>	<b>→</b>	<b>semetzat</b>
<b>Azkoitiar</b>	<b>+tzat</b>	<b>→</b>	<b>Azkoitiartzat</b>

## PERPAUSEZKO SINTAGMETAN

Ikus dezagun orain perpausezko sintagmetan nola egiten den. Perpausezko sintagmak jokagabeak eta jokatuak izan daitezke, haien aditza jokatu gabe ala jokatuta dagoen.

① Sintagma jokagabeak deklinatzeko, adizenari atzizkia kendu ondoren, deklinabide-atzizki singular urruna eranstean zaio, bien artean TZE lokarria hartuta.

<b>etor(ri)</b>	+	<b>a</b>	→	<b>etorTZEa</b>
<b>igo</b>	+	<b>an</b>	→	<b>igoTZEan</b>
<b>buka(tu)</b>	+	<b>a<sub>(ren)</sub>gatik</b>	→	<b>bukaTZEagatik</b>

- Baina adizena Nz edo letra txistukariz bukatzen bada, TZE gabe, TE eranstean zaio, ondo ahoska dadin.

<b>ema(n)</b>	+	<b>aren</b>	→	<b>emaTEaren</b>
<b>ikas(i)</b>	+	<b>ari</b>	→	<b>ikasTEari</b>
<b>utz(i)</b>	+	<b>ik</b>	→	<b>(utzTErik) uzTErik</b>

Azken sintagma honetan, norik kasuak, singularrik gabe, mugagabea bakarrik duenez gero, bi bokalen artean (TE eta IK artean) R lokarria ere eranstean du (**uzteRik**), 69. orrialdeko E adibidean ikusi dugunez, edozein mugagabetan bezala

② Sintagma jokatueta aditzak lokarrik hartzen duenez jakiteko, 85. orrialdean eta hurrengoetan agertzen den erroaren atzeko loturari buruzko paragrafoa eta 105. orrialdeko ondoriozko -KE- markari buruzkora jo behar dugu.

<b>dugulako</b>	baina	<b>duElako</b>
<b>dionean (IZAN nor-nori-nork)</b>	baina	<b>dioEnean (ESAN)</b>
<b>zenezaketela</b>	baina	<b>zenezakeEla</b>

# DEKLINATZEKO ATZIZKITEGIA

		i z e n e z k o a				p e r p a u s e z k o a	
mugagabea	singular hurbila	singular urruna	plural hurbila	plural urruna	jokagabea	jokatua	

## *Izenlaguna*

noren	EN		AREN	ON	EN	TzEAREN	N
nongo	TAKO		KO	OTAKO	ETAKO	TzEKO	NEKO
nondiko	TATIKO ENGANDIKO		TIKO ArenGANDIKO	OTATIKO ONGANDIKO	ETATIKO ENGANDIKO		
norako	TARAKO ENGANAKO		RAKO ArenGANAKO	OTARAKO ONGANAKO	ETARAKO ENGANAKO	TzEraKO	NERAKO
norainoko	TARAINOKO ENGANAINOKO		RAINOKO ArenGANAINOKO	OTARAINOKO ONGANAINOKO	ETARAINOKO ENGANAINOKO		
norazko	TARANZKO ENGANANZKO		RANZKO ArenGANANZKO	OTARANZKO ONGANANZKO	ETARANZKO ENGANANZKO		
norekiko	EKIKO		AREKIKO	OKIKO	EKIKO		
norentzako	ENTZAKO		ARENTZAKO	ONTZAKO	ENTZAKO		
norengatiko	ENGATIKO		ArenGATIKO	ONGATIKO	ENGATIKO		
nolako	taZKO		AZKO	OTAZKO	ETAZKO		

## *Nork*

nork	K		AK	OK	EK	TzEAK	
------	---	--	----	----	----	-------	--

## *Nori*

nori	I		ARI	OI	EI	TzEARI	
------	---	--	-----	----	----	--------	--

## *Nor*

nor	—		A	OK	AK	TzEA	LA
norik	IK					TzERIK	NIK

## *Osagarria*

zer	—		A		AK	TzEA	
non	TAN ENGAN		AN ArenGAN	OTAN ONGAN	ETAN ENGAN	TzEaN	NEAN
nondik	TATIK ENGANDIK		TIK ArenGANDIK	OTATIK ONGANDIK	ETATIK ENGANDIK	TzETIK	NETIK
nora	TARA ENGANA		RA ArenGANA	OTARA ONGANA	ETARA ENGANA	TzERA	NERA
noraino	TARAINO ENGANAINO		RAINO ArenGANAINO	OTARAINO ONGANAINO	ETARAINO ENGANAINO	TzERAINO	
norako	TARAKO ENGANAKO		RAKO ArenGANAKO	OTARAKO ONGANAKO	ETARAKO ENGANAKO	TzEraKO	N
norantz	TARANTZ ENGANANTZ		RANTZ ArenGANANTZ	OTARANTZ ONGANANTZ	ETARANTZ ENGANANTZ		
norekin	EKIN		AREKIN	OKIN	EKIN		
norentzat	ENTZAT		ARENTZAT	ONTZAT	ENTZAT		
norengatik	ENGATIK		ArenGATIK	ONGATIK	ENGATIK	TzEAGATIK	LAKO
nola	taZ		AZ	OZ	EZ	tzeaZ	NEZ
nortzat	TZAT						